

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko azaroak 17 · 1290 zenbakia

BAKARLARI IZATEKO JAUZIAREN AURREAN



www.urrategiinteriorismo.com
Elder Auzopista 27 Argentea Auzoa 9

PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz Klinika Clínica dental
Fermin Calbeton 19-3 esk. EIBAR
943 20 72 17 - 688 432 808
@egudent

MIGUEL SEMINARIO

ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886

arat.
ARAT ODONTOLOGIA CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratclinika.com

@arat_klinika



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologiam Lizentziatua
975-739

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

99 Edificio de

- INDIATERAPIA
- KIDU, LENGUAK
- Puztuta eta TRIZBENTE IA
- K. Hezketak + HERRITARRAKIA

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20
Tlf: 943 53 06 42
www.mendiafisioterapia.com

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / laser Teknologia



bista eder

clínica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistadeder.es



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Maite Arriagak saio berezia prestatu du azaroaren 18rako Ipuruako Merkatu Plazan. Maite Arroitauregi 'Mursego' musikariaren doinuekin lagunduta, marrazkilariek bi modeloren irudiak sortu ahal izango dituzte, euren poseetara moldatuz.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Eneko P. Arnaiz

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Azaroaren 30ean denon bizitzak erdigunean jarri nahi, baina ezin

Datorren San Andres egunean, azaroaren 30ean, Greba Feminista Orokorra deitu da Euskal Herrian. Bestelako zaintza eredu bat behar dugula aldarrikatuko dugu egun horretan eta jendarte osoa dago greba egitera deituta. Hala ere, Eibarren denok ez dugu greba egiteko aukera izango.

Hilabeteak dira Eibarko Udalarekin harremanetan jarri ginela. Izan ere, argi dago jaia eta greba egun berean egiteak bidea oztopoz betetzen duela: ez jaia eta ez greba. Horregatik, San Andresetako egitaraua egunez aldatzeko proposamena mahai gainean jarri zuen udalak, eta, beraz, azaroaren 30erako greba eguna prestatzen hasi ginen.

Grebarako aste batzuen faltan mezu berria jaso genuen udaletik: azaroaren 30eko egitarauari bere horretan utsiko ziotela. Udalak azken momentura arte itxaron du erabaki hori publiko egiteko.

Horren aurrean, argi utzi nahi dugu guk ere San Andresak ospatu nahi ditugula. Alabaina, azaroaren 30a greba eguna da eta denon greba eskubidea bermatzea dagokigu. Egitarauan parte hartzen duten askorentzat San Andres eguna ekonomikoki garrantzi handiko eguna da eta hor izan dezaketen galera oso larria izan daiteke; hori dela eta, egitaraua egunez aldatu ezean, ezinezko zaie greba egitea.

Idatzi honen bidez azpimarratu nahi dugu San Andres festa abenduaren 2an ospatzeko proposamenak babes zabala izan duela eta sinadura ugari bildu dituela:

Urbat I.K.E.; Kezka Dantza Taldea; Jainaga - Trikitilariak; Sosola baserria; Iraegi Handikoa baserria; Jaixak Herrixak Herrixandako; Eibarko Ernai; Ikama; Hanka-motsak bertso eskola; LAB sindikatua; Nalua Eibarko Talde Feminista; Guridi taberna; Eibarko Trikitilari Gazteak; Matraka; Kaxa gunea; Aza ta porrua elkarte; Debemen elkarteko kudeatzailea; ELA sindikatua; J. A. Mogel Ikastola; Eibarko Gure Esku Dago; ...eta kitto!-ko lantaldea.

Esandakoak esanda, Eibarko Greba Feminista batzordetik azaroaren 30ean greba egiteko deia egiten diogu eibartar orori. Guk San Andresak abenduaren 2an ospatuko ditugu!

Eibarko Greba Feminista batzordea

Hortik esanak



Psikologoak, sasi-zientzietan oinarritutako terapiak gidatzen dituzten “coach” horiek. Inpresioa daukat iluminatu horiek buruarekin obsesionatzera bultzatzen dituztela beren paziente edo biktimak. Esaten diete “zaindu zure burua, gorde denbora zuretzat, ez besteengan pentsa”. Egologo horiek, horrela, munstro berekoi, egozentriko, individualista, obsesibo eta paranoikoak, egologistak azken batean, sortzeko lanean dihardute. Hobe dut nire burua zaindu.

KEPA KORTA, ikertzailea

Kubari egiten zaion blokeoa amaitzeko, hamargarren ebazpena atera dute Nazio Batuek. Kontra, Estatu Batuek eta Israel; abstentzio bat, Ukrainakoa. Horra hor zer den nazioarteko komunitatea.

RIKARDO ARREGI, zutabegilea

1906an onartu zuten SOS izatea larritasuneko nazioarteko deia, 29 herrialdek sinatutako hitzarmenean. Berlingo biltzarrean onartutako hiru letra horiek espekulazio askori zabaldu diete atea. Esan izan da Save Our Ship (salbatu gure itsasontzia) edo Save Our Souls (salbatu gure animak) esan nahiko zutela, baina hori ez da oso sinesgarria. Batez ere, orduan ingelesak ez zuelako gaur egungo indarrak; gainera, diplomazian frantsesa erabiltzen zen eta zientzian latina. Seguruena, errekonozitzeko erraza izateaz aparte, transmititzeko ere ezin errazagoa delako aukeratuko zuten: hiru puntu, hiru marra, hiru puntu.

FELIX ARES, zientzialaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORRITTU → Zuhaitzak orri berriz jantzi. “Paguak beste urteetan baiño goizago orrittu dira aurten”.

ORRITZA → Zuhaitzetako orriek eratzen duten sabaia. Gaztelera “fronda, follaje”. “Pagadixaren orritziak zerua ezkututzen eban.

Isasi Barrenengua baserriko sukaldean

Indalecio Ojangurenen argazki hau noizkoa den jaso barik dago. Irudian amama lanean, artaburuak aletzen ageri da, eta aldamenean biloba, gaztainak erretzen. Haren aldamenean biloba txikiena dago, kuman. Baserría Alfa egon zen tokian zegoen, eta 1747. urteko agerietan agertzen da lehenengoz, YssasiBarrena izenarekin. Hiru pisuko baserri oso handia zen. Gerra ostean Alfak hartu zituen bere lurrak, eta 1956an bota zuten.



Farmaziak

BARIXAKUA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 21
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 23
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitela	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Pilar Unanue Olaizola.** 83 urte. 2023-11-08.
- **Paquita Mendikute Albizu.** 96 urte. 2023-11-11.
- **Victoria Mallagarai Aranburu.** 81 urte. 2023-11-11.
- **Josefa Seguin Souto.** 95 urte. 2023-11-11.
- **Miren Gandiaga Lersundi.** 93 urte. 2023-11-12.
- **Maria Barrero Mezcuca.** 88 urte. 2023-11-13.
- **Juan Arrieta Zabala.** 60 urte. 2023-11-14.
- **Cecilia Olan Bergara.** 95 urte. 2023-11-14.
- **Andres Garcia Acosta.** 85 urte. 2023-11-15.

Jaiotakoak

- **Yakoub Hamdan.** 2023-10-28.
- **Karden Obando Villafaña.** 2023-10-28.
- **Jueita Hassanna.** 2023-10-28.
- **Isis Da Costa Maria.** 2023-11-06.
- **Irati Osoro Azpilikueta.** 2023-11-10.
- **Julen Etxaluze Richard.** 2023-11-10.



Asteburu honetan hasiko diren sanandresak aurkeztu ditu Udalak

Aste honetan aurkeztu dituzte San Andres jaien inguruko ospakizunak Jon Iraola alkateak, Patxi Lejardi Jaietako zinegotziak eta Jose Luis Gonzalez Poxpolo Kultura Saileko teknikariak, jaiak iragarriko dituen kartela ezagutzera emateko prentsaurrekoan.

Eguazten goizean eman zuten eza-gutzera aurtengo San Andres jaiak iragarriko dituen kartela: hori aukeratzeko antolatzen den lehia-ketan, Cristina Rodriguez Abalos madrildarra izan da garailea, “Otarra bete-betea” izenburuko lanarekin. Umeen mailan, 13 urteko Nahia Martinez (“San Andres koloretsuak”) eta 9 urteko Maren Ubera Hernandez (“San Andres azoka barazkiz eta frutaz bete”) saritu dituzte. Kultura sailetik esan dutenez, 89 parte-hartzaile egin

Egun horretarako Greba Feminista Orokorra deitu bada ere, Udalak San Andres eguneko jaiarekin aurrera egitea erabaki du

dira (horietatik 39 nagusien kategorian) eta epaimahaikideak Natalie Garrido, Maite Barraincua, Iratxe Unanue eta Leire Kareaga izan dira. Sari banaketa azaroaren 30ean, San Andres egunean, izango da, 13:00ean Untzagan.

Aurkezpenean esan zutenez, “egitarau zabala asteburu honetan hasiko da, gastronomia-jarduerekin, eta hilaren 30eko Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokarekin amaituko da”.

Aurten San Andres egunerako deituta dagoen Greba Feminista Orokorren harira, Udalak jaiarekin aurrera egitea erabaki du: “Gure ustez, grebarekin lortu nahi dutena eskatzeko beste bide batzuk badaude eta guk ez dugu grebarik egingo. Edozein modutan ere, norberaren eskubidea da greba egin ala ez eta, gauza bat zein bestea erabaki, denentzat errespetua eskatu nahi dut”. Aurreratu zutenez, hilaren 30eko azokan 45 postu egongo dira eta hamar baserrik erakutsiko dute ganadua. Herrikirolak eta beste ekitaldi batzuk ere iragarri dituzte

Eskolarteko Bakailao Txapelketa eta Bacalaos Alcorta Pintxo Lehiaketa

Egitaraua asteburu honetan hasiko da, bihar goizean Errebalen egingo den San Andres Eskolarteko 19. Bakailao Txapelketarekin. Guztira 40 parte-hartzaile izango dira eta 10:30ean hasiko dira bakailaoa prestatzen. Hori amaitu eta, jarraian, 12:00etatik 14:00etara, Bacalaos Alcorta 5. Pintxo Lehiaketa egingo da: “Bertan izango dira Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Frantziako pintxo-txapeldunak, eta aurten ere Showcooking formatuan egingo da, interesa duten guztiak pintxoak nola egingen diren ikus dezaten”.

AUTUAN

BIHAR EMANGO ZAIO AZKEN AGURRA JON ETXABERI

Jon Etxaberi azken agurra emateko ekitaldia antolatu dute Eibar, Elgoibar eta Etxarri-Aranatzeko lagunek. Uztaileko azken egunean hil zen Etxabe. Altzolan jaioa, arrasto handia laga zuen Eibarren, hemen eman baitzituen bere bizitzako urte asko. 1950eko hamarkada amaieran apaiztu eta, Azitaingo abade zela, ETako kide batzuei lagundu eta 1969an atxilotu zuten. Zamorako kartzelan sartu eta Burgosko auzian epaitu zuten. Euskaltzale amorratua, ...eta kitto! Euskara Elkartearen sorreran hartu zuen parte. Bihar izango da ekitaldia, 12:00etan, Armeria Eskolan: "Bertsolariak, dantzariak, abeslariak, familiartekoak eta bertaratuko garen lagun guztiok emango diogu gure azken agurra".



Edukiontzi berriak abenduaren 1era arte ez erabiltzeko eskatu du Mankomunitateak

Debabarreneko Mankomunitatea azaroaren 6an hasi zen edukiontzi lateral berriak jartzen eskualdeko herrietan, horiak eta urdinak, igluak ordezkatzeko. 456 edukiontzi izango dira guztira, eta zerbitzu berria abenduaren 1ean hasiko da. Beraz, instalatu diren edukiontzi berriak ezingo dira erabili ordura arte. Edukiontzi berrietan argi adierazten da zerbitzuz kanpo daudela, baina Mankomunitateak atzeman du herritarrak dagoeneko

edukiontzi hauek erabiltzen hasi direla. Hori dela eta, herritarrak ohartarazi nahi ditu, abenduaren 1era arte ezer bota ez dezaten, ordura arte ez dituztelako edukiontzi berriak hustuko. Horrez gain, edukiontzi berriak instalatzeko, kenduko diren igluak metro gutxi batzuk mugitu behar izan dituzte, eta herritar ugari zabor poltsak lurrean uzten hasi direla atzeman dute. Horrelakorik ez egiteko eskatu dute.

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
Urkiizu, 11 - solairuarekin
688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Funeraria mugikorra

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugikorra

TANATORIO EIBAR

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otxola, 27

Elgoibar: Xuxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



“Zure Irrifarra, Nire Indarra” elkartekoak Asier Cuevas herri lasterketan egongo dira

Bihar jokatu da Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordeak antolatutako Asier Cuevas herri lasterketaren 10. edizioa, eta bertan izango dira “Zure irrifarra, Nire indarra” elkarteko zazpi kide: Aritz Viçuña (Bergara), Malen Garcia (Pasai Donibane), Iakes Lopez (Idiazabal), Mikel Fernandez (Legazpia), Urdin Mendiola (Oñati), Magali Muruamendiarrak (Bergara) eta Amets Vega eibartarra. “Zure Irrifarra, Nire Indarra” ekimena 2019an

sortu zen, Orkli kooperatibaren laguntzarekin. Iakes Lopez-en aitak sustatu zuen, urritasun funtzionala duten pertsona guztiei kirola egiteko aukera emateko. Kasu honetan, beren ezintasun baldintzengatik modu natural eta propioan egin ezin dituzten atletismo lasterketetan parte hartzeko. Gipuzkoa mailako elkarte da eta hainbat herritako jendea da bertako kide. 2019az geroztik hartzen dute parte Eibarren egiten den lasterketan.

Topekin ekintzaileei zuzendutako solasaldia egingo da Debegesan

Ekintzailetza-esperientziak partekatu nahi dituzten ekintzaileei zuzendutako solasaldia egingo da Debegesan datorren barixakuan, 15:30ean. Topekin izeneko ekimena bultzatu dutenen berbetan, “tokiko eragile-ekintzaileen arteko ikaskuntza erraztu nahi dugu, gure esperientziak partekatuz, arrakastetatik zein porrotetatik ikasi ahal izateko”. Solasaldian

parte hartuko dutenak honakoak dira: Carlos Abad (Armeria Eskola Elkartearen presidentea), Iban Lozano (aholkulari eta editorea), Esther Velasco (HRE Automation) eta Galder Garcia (garatzailea).

Jardunaldian parte hartu ahal izateko beharrezkoa da aurretik izena ematea, horretarako Debegesaren webgunean dagoen formularioa beteta.

Merkataritza eta Zerbitzuetan %20ko deskontuarekin erosteko

Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI), Eibarko Udalarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin elkarlanean, Oparitu Eibar txartelak sustatzeko kanpaina berria jarri du abian, Merkataritza eta Zerbitzuak sektoreei zuzendutako deskontu garrantzitsuak eskainiz. Kontsumitzaileek 50 euro eta 100 euroko txartelen artean aukeratu ahal izango dute. Bietan, %20ko deskontua izango dute. Komertzio eta Zerbitzuen sektorerako promozio-txartel horiek Internet bidez eros daitezke, www.erosieibarren.eus webgunean. Sektore bakoitzeko txartel bat erosi ahal izango da NAN bakoitzeko (NAN bakoitzeko 50 euroko txartel bat edo sektore bakoitzeko 100 euroko txartel bat har daiteke).



Grebari buruzko asanblada egingo da gaur

Zaintza eskubide kolektiboaren alde azaroaren 30ean egingo den greba feminista orokorraren berri emateko asmoz, gaur, 18:30ean, asanblada informatiboa egingo da Andretxean. Horrekin batera, Eibarren greba prestatzeko lanean ari den taldeak azalpen orokorrak laburbiltzen duen gutuna pegatu du herriko pegora gutzietan.



AEK Euskaltegiokoen ekitaldiko ARGAZKI BILDUMA www.etakitto.eus webgunean dago ikusgai eta BIDEOA gure YouTube kanalean.

Ederki ospatu dugu Gaztaiñerre

Astelehenean ospatu zen Gaztaiñerre Eibarren eta, urtero bezala, AEK euskaltegiokoen egindako gonbidapenari erantzunez, aurten ere talde polita batu zen Errebalean, handik abiatuta Urkizuraino kalejiran joateko. Trikitilariak lagunduta, ederto ibili ziren kantuan eta, ondoren, afari-merienda ederra egin zuten Zai Zoi tabernan. Eta Usartza taldeko txistulariak ere bapo afaldu zuten, entsegua amaitu eta gero.



Kontsumitzaileen Bulegoak argi eta gas hornidurei buruz azalpenak emango ditu

Eibarko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak kontratu eta argi- eta gas-hornidurei buruzko hitzaldia eskainiko du eguenean, 18:00etan, Portaleko areto nagusian. Doakoa da eta interesa duen edonor joan daiteke. Hitzaldian herritarrei informazioa emango zaie, argia eta gasa kontratatzeke orduan aukera

onenak zeintzuk diren jakin dezaten, "bereziki gasaren kasuan, izan ere, 2023ko lehen hilabeteetan, askok salatu zuten diru asko ordaintzen ari zirela. Zehazki, gobernuak araututako tarifaren eta merkatu librean eskaintzen direnen arteko aldeak azalduko dira, eta nola kontratatu, iruzurrik ez giteko".





Eibartik Elgetara bitarteko mendibide zaharrean dago San Salvador edo Salbatore ermita.

INDALECIO OJANGUREN MARTIN BILDUMA (GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA)

Kanpaia jotzen zen ermitan, mezetara sartu aurretik. Auzokoren bat hiltzen bazen, hil-kanpaiak jotzen ziren, baina bertan ez zen elizkizunik egiten.

San Salvador ermitako kanpaiak; hil-kanpaiak

Maria Jesus Osa Alberdi
(1940)



Soraluzeko Eitza baserrian jaiotakoa. Ama Bergarako Ontzola baserrikoa zuen, baina aitaren aldeko gurasoak bata Ibarrolakoa eta bestea Osteita baserrikoak ziren. Gazterik hasi zen lanean, Zestoa eta Altzolako bainuetxeetan. Ezkondu eta Eibarrera etorri zen bizitzera. Bere ahizpa Mirenekin batera egin zitzaion grabazioa.

Maria Jesus Osari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Eta badaka kanpairik?] Bai, bai, uste dot ez dabela kendu, eh! Kanpaiak beti jotzen zeben. [Sartu aurretik, ezta?] Bai. Ta hamaiketan mezia bazan, kanpaia geratu be ez zekan (...). Gero oin, urtetan ez dago hori ambienteori ta... [Eta kanpaia jotzen zan aparte, igual beste zeozertarako?] Bai, auzokoak hiltzen ziranian eta. Bai, pentsaizu! [Berton, baiña, elizkizunik?] Ez, ez, ez, dana parrokixan. Bai. San Andresen. Hau San Andresera zertzen da. Baiña lehelengo, karmelitak etorri ziranian Eibarrera, esaten zeben harek hartu zebela. Baiña terrenua ta dana Aretana da. Areta baserrixa, azkenengua? Ez, bestia.


Neinor HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

AUÑA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garaiea • Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

LEHIAKETA!



astindu
eibar

- **3. ASTEKO SARIA:** COLISEORAKO EDO MUSEORAKO 2 SARRERA.
- **HILABETEKO SARIA*:** 100€-KO EROSKETA-BONOA EIBARKO DENDETAN ERABILTZEKO.
*Azarrik 3, 10, 17 eta 24ko lehiaketetan parte hartu eta gehien asmatu dituenarentzat (berdinketa badiago, zozketa bidez egingo da)



SARTU ONDORENGO ESTEKAN ETA ERANTZUN 3 GALDERAK:



<https://labur.eus/astindu3>



Udaltzainburu berriak dagokion Hizkuntza Eskakizuna beteko du?

Eibarren lortuko dugu subkomisario bat 4. Hizkuntza Eskakizunarekin? Ondobidean, lehen udalerrietako bat izango da: Zarautzek badauka ere, udalerrri gehienetan 3. Hizkuntza Eskakizunarekin daudelako. Horretarako, dena dela, hainbat urrats eman behar izan dira, tartean oposizioak estreinako aldiz ezartzea lanpostu baterako Hizkuntza Eskakizuna, euskararen mesedetan.

Urriko azken plenoan gauza bereziak ere izan zirelako, bi kasutan Udalak, PSE-EE-ren kontrako botoekin izanda ere, aurkeztutako bi mozio onartu zituelako. Kasu bietan euskara tarteko zela. Batetik, azken aldian EAeko Auzitegi Nagusiak emandako epaia deitoratuz EAJ-PNVk eta EH Bilduk aurkeztutakoa, “euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa gauzatzearen alde”. Aipatutako epaiak 2019ko Dekretuaren zati bat baliogabetzen duenez, EUDEL-ek onartutakoaren antzera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen defentsa berresten da mozioan “udal-autonomiaren eta toki-erakundeen eskumenen bermatzaile gisa, zehazki, euskararen esparruan”. Ez hori bakarrik, bi alderdiek legea ezinbestekotzak jutzen dutelako “Eibarko Udalak euskararekiko duen konpromisoa eta Eibarren euskararen erabileraren sustapena gauzatzeko, herritarrekin duen hurbiltasunetik abiatuta”.

Mozio horrekin jarraituz, bertan epai berri hori toki-autonomiaren aurkakoa dela esaten da eta baita “hizkuntza arloko udal-eskumene garapen osoa mugatzen duela” ere. Ez da ahazten “kontratazio publikoan euskara baloratzeko aukera ematen duten artikulua edo udal-jarduerak euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-plangintza ahalbidetzen dutenak ere” deuseztatzen direla. Halaber, alderdi biek sinatu eta aurkeztutako mozioan “kaltetuenak ohiko hizkuntza duten herritarrak direla” esaten da, “hiztunen eskubideen garapenean aurrera egiten jarraitzeko erronka eta aukerari” baietz esateaz gain. Elkarrekin-Podemosko ordezkariek ere bat egin zuen mozioarekin.

Mozioaren inguruan sortutako eztabaidaren barruan, Ana Telleria PSE-EEko bozeramaileak aipatu zuen lehen ere “adierazi izan dugu erabaki batzuk bazutela atzera botatzekoak izateko arriskua”. Gainera, mozioa ere “bakarrik euskaraz jaso” izana aurpegiratu zien.



Urriko azken Plenoan aurkeztutako mozioen alde egin zuen oposizio guztiak, PSE-EEK aurkako botoa eman zuen bitartean.

Politikoki esanguratsua

Horrela kalifikatzen du Josu Mendicute EAJ-PNVko bozeramaileak azken plenoan onartutakoa, “ez delako ohikoa PSE-EEren kontrako botoekin Udalak zer bait onartzea”. Osoko Bilkurak, gainera, aldaketa batzuk ere onartu zituen Lanpostuen Zerrendan, tartean “Udaltzainburu berria izango denaren Hizkuntza Eskakizuna”. Izan ere, PSE-EEK saiakera egin duelako Hizkuntza Eskakizunean behera egiten, baina Udalbatzak atzera egin dio, “EAJ-k proposatuta eta EH Bilduk babestuta” dagokion hizkuntza eskakizuna jarrita. Mendicutek dioenez, “aurretik ere salatu izan dugu, baina oraingoan hitzetatik ekintzetara pasa gara”.

Mozioa aurkeztu dutenen arabera, “Euskararen Normalizaziorako Aholku Batzordean (ENBA) aurkako erabaki gabe, Eibarko Udalak Hizkuntza Politika Sailburuordezari (HPS) proposatu zion Udaltzainburu edo subkomisarioarako postuari 4. Hizkuntza Eskakizuna

ezartzea. HPSk Udalarari oniritzia eman eta gero, ENBA eztabaidatu gabe eta HPSren oniritzirik gabe, 3. Hizkuntza Eskakizunera (EGA) jaitsi nahi izan dute. Eta holaxe joan zen diktaminatuta Pertsonal Batzordetik Osoko Bilkurara”.

Diktamen horren aurkako zuzenketa aurkeztu zuen EAJ-PNVk,

eta EH Bilduk babestu. PSE-EEK kontra egin zuen. Mozioak aurrera egin arren, ez dago argi lortuko den 4. Hizkuntza Eskakizuna beteko duen subkomisariorik: “Agian ez, baina ez badugu lortzen, prozesua hasi beharko dugu berriro 3. Hizkuntza Eskakizunarekin; baina ez da izango saiatu ez garelako”, diote.



Euskara babesteko jende oldea izan zen Bilbon azaroaren 4an. Euskara sustatzearen kontrako epaiak salatu zituzten dozenaka mila euskaltzalek, eta “akordio soziopolitiko bat” eskatu zuten, hizkuntza politikan “jauzi bat” egiteko.



LEIRE NARBAIZA

Jon Etxabe goguan

Zapatuan egingo detse agur ekitaldixa hil barri dan Jon Etxaberi. Etxaberen bizitzia laburtzeko ...eta kitto! zenbaki osua biharko geunke, eta arlo asko hartzen dabenez, ez naiz kapaza ganorazko errepasso osua egitteko. Horretarako egongo dira beste batzuk. Baina nik ezagutzeko suertia euki nebanez, horren gaiñian berba egin nahi dot.

Jonekin ...eta kitto!-ren hasieretan egin genduan topo. Bera gizon nagusixa zan, "historikua", eta gu gazte kuadrilla nahiko zorua. Gazte eta berde, esaten dan moduan. Taldeko zaharraguak hamaikatxo burruka egindakuak ziran euskerian alde, eta gaztiok proposatutako ekintza eta ekimen askori beti trabaren bat jartzen zetsen: horrek ez dau funtzionatzen, hori karua da, ez daka zentzunik... hola ibiltzen giñan. Gure ilusiñua, indarra eta esperientzia eza frenatzen denbora guztian. Eta frustraziñua eragiten zeskun, ez dot guzurrik esango. Jonek, baiña, beti entzutzen zeskun, bere lehelengo berbia ez zan "ez" izaten. Gaiñera, gozo eta irribarrez tratatzen ginduzen.

Lehelengo omenajia egin zanian Orbea frontoian, bera izan zen omenutako bat, eta neri tokau jatan berari lora-txortia emotia. Ohoria izan zan neretako, eta berak pozarren hartu ninduan.

Geruago, Etxarrira juan zan bizitzera, eta luzaruan ez neban ikusi.

Oin urte batzuk, baiña, Luistxo Fernandezek deittu zestan esateko Etxabek eibar.org-en bloga zabaldu gura zebala urtietan idatzitako guztiak batu eta argira etaratzeko, eta ia prest nenguan blogian ibiltzen erakusteko. Nik baietza emon neban.

Ordurako Jonek 80 urtiak ondo beteta zittuan, eta ordenadoria testu prozesatzaille erabiltzen zeban bakarrik, askoz gehixago be ez. Hala, gure artian berba egin, eta bere etxera juan nintzan. Ez zan erreza izan, ez dot guzurrik esango, baiña pare bat saiotan lortu genduan bloga martxan jartzia. Dudak izaten zittuan, eta mezuak idatzi. Gitxi, egixa esatera. Holan bihurtu zen Jon euskal blogaririk beteranuena. Beteranua eta aktibuenetakua.

Bere irribarria eta goxotasuna izango dogu faltan. Milla esker, Jon!

" Jonek, baiña, beti entzutzen zeskun, bere lehelengo berbia ez zan "ez" izaten. Gaiñera, gozo eta irribarrez tratatzen ginduzen"

Euskararen kolore guztiak berreskuratzen

Deskargatu hemen



Gure hizkuntzaren alderdi bat da hitanoa. Tamalez, galtzen joan dena. Herriko zaharrenek erabiltzen dute gehienbat, belaunaldietan zehar galtzen joan delako, eta gazte batzuei, agian, oso arrotz egiten zaie. Orain, teknologia berriak lagun, Ego Ibarra Batzordeak, Eibarren Akebai Plataformak eta Badihardugu Euskara Elkartek, Codesyntaxen bitartez, hitanoaren erabilera berreskuratzeko aplikazioa sortu dute herriarentzat: Appahi!

Begoña Azpiri Ego Ibarra Batzordeko kidearen ustez, penagarria izan da azken hamarkada haue-tan hitanoak Eibarren izan duen beherakada. “Sasoi batean bertako euskarak zuen bizitasuna eta osasuna galzorian daude; oso pertsona gutxi dira gaur egun hitanoa darabiltenak, lagunarteko erabilera ere galdu da, eta darabilten apurrrak pertsona nagusiak dira”, bere iritziz.

Horren inguruan, zera dio Asier Sarasua Badihardugu Euskara Elkarteko kideak: “Gerra aurretik jai-xotako guztientzat guztiz normala zan hika egittia. Dana zan hikaz”. Gero, eten bat egon zen, belaunaldiz belaunaldi galtzen joan zen, eta orain egoera oso bestelakoa da. “Hika hezkuntza sistematik etara egin da. Gaur egun, Euskal Herriko gazte gehixenak 18 urtera helduko dittuk ikasketa-prozesu guztixa egiñ eta hika existitzen danik be ez dakixala”.




Hitanoaren erabileraren egoera orokorra hori bada, gehiago sakonduz gero, aldeak ikusi ditzakegu gizonak eta emakumeek egiten duten erabileran. “Gerra sasoi inguruan eten bat egon zan hikaren erabillerian, gehixen bat andretan. Noka desagertu egin zuan. Gaur egunian, noka egitten daben oso gitxi geldittuko dittuk”, Sarasuak dioenez. Zentzu horretan, hikaren erabilerak emakumeen ahizpata-sunean duen zeresana azpimarratzen du Azpirik. “Betidanik izan delako andrazkoen arteko konplizitatearen seinale esanguratsua”, bere iritziz.

Hitanoaren erabileraren galararen faktoreak aztertzea komeni dela diosku Azpirik, baina berak, Appa hi! proiektuan parte hartu duten guztiek bezala, aurrera begiratzen du eta, bere ustez, “ahalegin bat egin behar da gazte jendeari berbeta lauan kolore gehien duen hizkuntza-atal honen alde onak erakusteko, lagunartean eta kalean hizkuntza adierazkorra eta bizia erabil dezaten”.

35 eguneko erronka

Gauzak horrela, Appa hi! aplikazioa Eibarko euskalkian erabiltzeko bertsioa sortu dute. “Sasoi batean etxean edo kalean ikasten zen hika, baina gaur egun ez da entzuten, transmisio hori ez dago. Orduan, app-a oso aukera ona da hika beste bide horietatik ikasi ezin izan dutenek ikasteko”, Ane Albisu Eibarren Akebai plataformako koordinatzailearen ustez.

Hain zuzen ere, Eibarrek duen taimainagatik eta bertako euskararen eta hitanoaren inguruan liburuetan jaso den guztiagatik, Sarasuak dio



Egunero pilula bat egiteko aukera ematen du aplikazioak. APPAHI

herri aproposa dela Appa hi! bezalako aplikazio bat bertan zabaltzeko. “Euskalkiak bere tokixa eukijok idatziz eta hedabidietan, bertako euskeria jaso da, liburuak argitaratu dira bertako euskeriaren inguruan... Prozesu horretan hitanuari ez jako garrantzi handirik emon, ez behintzat berariaz, eta oraiñ aukeria dago”, diosku.

Horretarako tresna baliagarria da Appa hi!. Aplikazioaren lehen bertsioa 2021ean sortu zuten Oñatirako, bere euskalkian, eta urtebete geroago euskara batua praktikatzeko bertsioa kaleratu zuten. Orain, bertsio berriarekin, eibartarroi emango digute hitanoa eta Eibarko toka eta noka ezagutzeko, erabiltzeko eta hedatzeko aukera.

Aplikazioaren erabilera oso erraza eta atsegina da, eta alderdi ludikotik egiten da. “Modu erreziak praktikatzen hasteko modu bat da”, Sarasuaren ustez. “Azalpenak bebadagoz, baiña alderdi teorikua murrizten saiatu gara eta bideuetako pasartiak, hika egiten daben abestixak... sartu dittugu”, gehitzen du.

Appa hi!-ren proposamena hitanoa bost astetan (35 egunetan) praktikatzeko (egunero 10-15 minutu) da. “Baina bakoitzak bere erritmora egin dezake, nahi duen tokitik”, diosku Albisuk.

Horrela funtzionatzen du: Egunero pilula batean informazio jakin bat ematen da (azalpenak, marrazkiak eta bideoak, adibideekin). Ondoren, azalpenekin lotutako galdera-sorta



Hitanoa modu ludikoan praktikatuta ahal izango da 35 eguneko erronkan: irudiekin, bideoekin eta abestiekin. APPAHI

bat dator, eta zuzen erantzun behar da. Galdera guztiei zuzen erantzunez gero, hurrengo egunean beste pilula bat egiteko aukera egongo da. Aste bukaeran errepasso bat egongo da, eta maila bat igotzeko aukera. Guztira bost maila dira gainditu beharrekoak, aste bakoitzeko bat. “Oso praktikoa da”, diotenez. Eta Sarasuak garbi dio: “Hika ikastia oso zaila dala esaten jokjende guztiak. Ez, ez da egixa. Euskeria jakinda, hika ikastia ez da zaila. Dinamikia hartzia eta gauzak zelan esaten diran konturatzia da gauzia. Hori bai, gero erabili egin bihar da”.

Albisuk esan digunez, herriko eskoletan, DBH-n eta Batxilergoan aplikazioa erabiltzen hasiko dira, eta Sarasuaren ustez ikastetxeek berebiziko lana egin dezakete hitanoaren ezagutza eta erabilera sustatzeko orduan. “Kaleko eta familiarako transmisiñua galdu bada,

>>> Hitanoa modu ludikoan praktikatzeko aplikazioa da Appa hi!

ikastetxiak sartu biharko dittuk horretan, edo Appa hi! moduko tresnen bittartez egin biharko da, bestela ez dago modurik”, diosku.

Oñatiko topaketa

Appa hi! saiakera interesgarria da hitanoaren erabileraren berreskuratze prozesu horretan, baina ez da horrelako ekimen bakarra Euskal Herrian. Izan ere, Sarasuak eta Albisuk proposamen gehiago ezagutu ahal izan zituzten hilaren hasieran

Badiharduguk eta UEUk Oñatin antolatu zuten I. Hika Topaketan. “Azkenengo 10-15 urtietan hainbat esperientzia eta ekimen dare hitanoaren erabilleria berpizteko eta sustatzeko”, Sarasuaren berbetan.

Esperientzia horiek, gainera, oso ezberdinak dira, hitanoaren egoera ere ezberdina delako herri bakoitzean. “Tokian tokiko egoeraren arabera, batzuen kezka zen hitanoa ondo erabiltzen den ala ez, baina beste batzuk erabiltze hutsarekin pozik zeuden”, zehazten du Albisuk.

Lehen topaketa izanik, egitasmoak ezagutzeaz gain, elkar ezagutzeko eta hemendik aurrera zer egin daitekeen hausnartzeko balio izan zuen topaketak. “Amaitzian, bakotzak berba bat esan bihar jua eta gehixenek ‘ilusiniña, ‘indarberri-tuta’, ‘etorkizuna’... esan zeben”, diosku Sarasuak. Bai, etorkizuna ilusionagarria du hitanoak.

XABIER BADIOLA • Musikaria

“Folkean musika eta letrak oso intimoak dira”

Zalaparta handirik gabe, ia egun batetik bestera, Xabier Badiola diskoarekin besapean agertu zaigu. Bere bakarkako lehen diskoa da eta, folk abeslari handien bidea jarraituz, bere izena darama. Berak esan bezala, ez du tranparik. 10 abesti ditu eta letrak euskaraz daude, gitarrak beste toki batzuetara bidaiatzeko aukera ematen digun arren. Zuzenean ikusteko aukera izango dugu aurki; beraz, adi egon.



Gitarrarekin sarritan ikusi dugu eszenatoki gainean, orokorrean talde batek inguratuta. Orain, osterera, gitarra besterik ez du lagun Xabier Badiolak, eta hori baliatuz, bere aho-tsarekin batera, zeresana eman dezakeen diskoa sortu du. Sorkuntza ere ez da nolana hikoia izan, etxean grabatu, nahastu eta masterizatu baitu. Pertsonalagoa ezin da izan.

Egun gutxi daramatza kalean, baina nolako harrera izan du diskoak?

Oso ona! Jendea etorri zait esanez behin baino gehiagotan entzun duela. Horrez gain, proposamen interesgarriak iritsi zaizkit. Adibidez, diskoa EITB Kulturaren aurkeztea. Beraz, espero nuena baino harrera hobea izan du.

Diskoaren izenburuak zure izena darama. Zergatik?

Asko gustatzen zait 60. hamarkadako revival folka eta, normalean, abeslarien izena jarri izan diote lehen diskoiei. Horrela egin izan nahi dut. Gainera, aurkezpen modura ere balio du. Orain arte rocka, psikodelia edo beste estilo batzuk landu ditut, eta jendeak ez daki folka egiten dudala. Orduan, Xabier Badiolak egiten duena hau dela esateko balio dezake.

60. hamarkada aipatu duzu eta, hain zuzen, diskoaren doinu askok sasoi horretara eramaten du entzulea.

Nahaste-borraste bat da. Nick Drake eta beste musikari

ingeles batzuen, Mikel Laboaren, musikari amerikarren eta bestelakoen eragina nabaritzen da diskoan. Bestetik, baliabide gutxirekin grabatzen eta ni neu, musika arloan progresiboa izan beharrean, erregresiboa izatean, ekoizpen aldetik etxekoia izatea gustatzen zait, eta horrek bat egiten du 60. hamarkadako filosofiarekin.

Hori bilatu egin duzu edo horrela suertatu delako izan da?

Baliabide gutxi nituen eskura, baina hori bultzatu egin dut. Adibidez, giro-soinu batzuk Arrateko Jaietatik jaisten grabatu nituen, etxeko pasillo baten erreberberazioa aprobetxatu dut gauzak grabatzeko, koro bati kolorea emateko mikrofonoa pasilloan jarri eta egongelatik abestu dut... Gehienez bi lagun egon gara etxean grabatzen eta horrek espermentatzeko aukera asko ematen ditu. Sinplea da, baina ondo pasatu dugu.

Beraz, estudioan lor daitezkeen gauzak artisauro moduan egin dituzu?

Diskoa gauza oso zaindua bezala planteatu dezakezu, produkzio oso finarekin, edo nik hartu dudana bidetik. Gitarra, ahotsa eta kolore-paleta mugatua edukita, modu perfektuan grabatuz gero, denbora guztian soinu berdina sortuko litzateke. Ostera, izaera berezia eta 'rollitoe' duten doinuak eta soinuak topatzen badituzu, interesgarriagoa da. Entzulearentzat ere aberasgarriagoa da, entzuten duen bakoitzean zerbait berria aurkituko duelako: auzokidea etxean sartzen, trena pasatzen... Argazki bat bezalakoa da.



Folk doinuz beterik dago Xabier Badiolaren bakarkako lehen diskoa. ENEKO P. ARNAIZ

Diskoan gitarra eta ahotsa dira nagusi. Gitarraekin edonora zoaz?

Bua! Gitarra akustikoa boom bat izan da niretzat. 16 urterekin Nick Drake eta abarrak entzuten hasi nintzen, eta zerbait barrokoa iruditzen zitzaidan. Sasoi horretako estiloari ‘folk baroque’ esaten zaio. Geruza pila bat ditu, oso gauza zailak egiten zituzten, baina nik gitarra elektrikoa jotzen nuen eta, musika hori gustatu arren, ez nuen pentsatzen joko nuenik. Pandemia baino pixka bat lehenago, ostera, eskuekin (fingerpicking) asko jotzen hasi nintzen, jende asko ezagutu nuen eta zulo horretan sartu nintzen, afinazio alternatiboak eta gauza oso irekiak probatzen.

Atzerriko musikarien eragina aipatu duzu, baina diskoan euskara hutsean abestu duzu. Zergatik?

Diskoan euskaraz abesteko hautua egin dut. Orain arte ingelesez eta beste jende batek abesteko idatzi dut. Abestiak ingelesez idaztea errazagoa dela esaten nuen. “Ze noski, Eskoriatzara zoaz eta ingelesez ez dizute ulertzen, edo ulertzen dute, baina berdin da”, nioen. Hesi baten moduan funtzionatzen du horrek. Folkean, ostera, musika eta letrak oso intimoak dira. Normalean, ez da hain eskuragarri dagoen generoa, baina hesi hori pasatzen duzunean mezua oso gertutik iristen zaizu. Oso gertuko musika da. Nik euskaraz pentsatzen dut eta, ingelesez abestuz gero, mezutik aldendu egingo nintzateke. Beraz, lagun batekin

hainbat zerbeza hartzen nengoela, zera esan zidan: “Lau ordu egon gara euskal musikaz berbetan. Zergatik ez duzu euskaraz abesten?”. Abestiak ingelesez idatzita nituela esan nion eta abar; baina, hurrengo egunean esnatu nintzenean, arrazoia eman nion eta abestiak euskaraz berriatzi nituen. Beste forma bat hartu zuten.

Beraz, letrek garrantzi berezia dute diskoan?

Bai, bai. Gitarra-jolea izatea oso ondo dago, baina musika izatea beste kontu bat da. Letrei dagokienez, ahalik eta zintzoena izaten saiatu naiz, baina testua zabalik laga nahi izan dut, jendeak bere modura interpretatzeko.

Arlo musikalaz gain, diskoan ekoizpenaz arduratu zara. Nolako lana izan da?

Ez dakit zein momentutan sartu nintzen horretan (barreak). Abesti batzuk eginda nituen eta udan, familiakoak etxetik joan zirenean, egun horiek aprobetxatuko nituela pentsatu nuen. Zoroen pare hasi nintzen, aurrekoizpena egiten, dena prestatzen... Letra batzuk diskoa grabatzen joan nintzen neurrian amaitu nituen. Hori izan zen grabazioaren arlo politena. Gero, ostera, nahasketa etorri zen, eta nekeza da. Balia bide gutxi nituen eta nola egin pentsatu behar izan nuen. Ondoren, masterizazioa egiteko, gauzak eskatu behar izan nituen. Lan handia izan da, baina hautu estilistikoak hartu behar dira eta asko gozatu dut.

“Protagonismoa modeloek izango dute eta jendeak modelo horiek marrazten gozatuko du”

MAITE ARRIAGA • Margolari eta marrazkilaria



Musika eta margolaritza uztartuko dituzte bihar iluntzean Ipuruako Merkatu Plazan. Maite Arriaga artista eibartarrak antolatutako ekimenean, Maite Arroitauregi ‘Mursego’ musikariaren musikaz lagunduta, herriko marrazkilariak bilduko dira, Zuriñe eta Nika modeloak marrazteko asmoz.

Ez da lehen aldia Maite Arriagak horrelako zerbait antolatzen duena, baina lehenengo aldia izango da Ipuruako Merkatu Plazan. Aurreko edizioetan Biharrian-en egin dute, Ubitxan, eta orain beste giro batean arituko dira marrazkilaria (parte hartu nahi dutenek marrazteko materiala eraman beharko dute: koaderno, arkatza, kolorea...). Publikoak marrazkiak egiteko prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango du eta Maite Arroitauregiren musikak saioa girotuko du, egitasmoari kolorea emanez.

Nolako saioa izango da biharkoa?

Pixka bat sinplifikatuz, irudiak marraztuko ditugu. Hau da, giza figurak. Biharrian-en horren inguruko klaseak ematen ditut eta hori publikoaren aurrera eramatea da kontua. Horretarako, zuzeneko musika lagun izatea modu erakargarria dela pentsatzen dut eta, gainera, Maite Arroitauregi jende askok ezagutzen duenez, are erakargarriagoa izango da saioa. Esan behar da, hala ere, musika akonpainamendua izango dela, ez da protagonista izango egitasmo honetan. Protagonismoa modeloek izango dute, posatzen egongo baitira, eta jendeak modelo horiek marrazten gozatuko du.

Orduan, musikak saioa girotuko du, baina ez du marrazketan eragingo?

Ez da kontzertu bat izango, marrazketa saio bat baizik. **Modeloak posatzen egongo direla esan duzu, baina zer egingo dute? Mugitzen egongo dira? Geldirik denbora osoan?**

Euren lana oso garrantzitsua izango da. Biluzik egongo dira gizakien anatomia marraztu ahal izateko, eta hamar edo hamabost minutuan behin posea aldatuko dute. Emakume eta gizon bana izango dira. Denbora hori lagako diete marrazkilariei, gutxienez zirriborro bat marrazteko denbora eman diezaien. Agian pose batzuk luzeagoak izango dira, baina hori modeloek ikusiko dute, profesionalak dira-eta. Nire klaseetan bai esaten dudala “pose hau orain aldatu” edo “eutsi poseari denbora gehiagoz”, marrazkien prozesua ikusten noalako momentu oro, baina biharko ekintza oso librea izango denez eta oso egituratuta egongo ez denez, hau da, espontaneoagoa izango denez, zirriborroak egingo ditugu gehiago, marrazki perfektuak bilatu baino. Modeloak izango dira protagonista, eurak marraztu behar baitituzte.

Marrazkilariek bozetoak egin ondoren, marrazkiak garatzeko aukera izango dute?



Marrazkilariak Maite Arroitauregiren musikaz lagunduta arituko dira Arriagak antolatutako ekimenean. EKHI BELAR

Bakoitzak ikusten baldin badu marrazki horretatik koadroren bat atera daitekeela, nahi duen moduan garatu ahal izango du.

Badirudi saio honetan inprobisazioa sartzen dela asko jokoan. Musikak, jam session bat izanik, horretan lagundu dezake?

Bai, eta polita da. Maiteri hori esaten nion: berarentzat lan hau polita izan daitekeela, ez delako kontzertu bat ematea, baizik eta akonpainamendu bat egitea. Orduan, bigarren postu batean kokatuko da modeloen poseei laguntzen. Hortik gauza interesgarria irten daitekeela pentsatzen dut. Ez naiz musikaria, baina berarentzat polita izan daitekeela uste dut. Berarekin berba egin dudanean, esaten zidan inoiz ez duela horrelakorik egin eta baduela gogoia egiteko.

Sortzeko orduan, margolariei musikak laguntzen dizue?

Bai, lagundu egiten digu.

Normalean, musika jartzen duzue margotzen ari zaretenean?

Nire klaseetan beti jartzen dut musika. Egia da, ostera, isilpean lan egitea ere oso interesgarria eta ona dela. Baina bai, musikak bestelako laguntza bat ematen du.

“Modeloak biluzik egongo dira gizakien anatomia marraztu ahal izateko, eta hamar edo hamabost minutuan behin posea aldatuko dute”

Nork hartu dezake parte biharko saioan? Gutxieneko trebezia eta jakintza behar da?

Egia esan, egin beharreko lana oso zaila da. Modeloak marraztea ez da erraza, baina saio honetan ez ditugu besteen marrazkiak begiratzen eta epaitzen. Orduan, edonor etorri daiteke, librea izango da, eta umeek ere hartu dezakete parte. Gainera, baten batek etorri nahi badu, nahiz eta ez marraztu, aukera izango du. Musika entzuteko eta modeloak begiratzeko aukera izango du, oso pose politak egiten dituztelako.

Publikoa egoteak marrazkilariei eragiten die sortzeko orduan?

BIDEOA



Beno, hemen ez da kontua besteei begiratzea. Bertan sartzen garenean eta giro berezia sortzen denean, gauza horiek desagertu egiten dira. Hau da, jendea ez doa begiratzera batek edo besteak nola marrazten duen, ezta pertsona bat biluzik ikustera ere. Jendea ez doa horretara. Giro artistikoa sortzen da. Bakoitzak bere lana egiten du eta ez du kontuan hartzen albokoak egiten duena.

Esperientzia hori izan duzu aurretik Biharrian-en egindako saioetan?

Biharrian-en bizpahiru aldiz egin ditugu horrela saioak, eta horrela gertatu izan da. Dena dela, ideia hau Argentinan aurkitu nuen, Buenos Airesen, eta ekarri egin nuen. Pare bat aldiz egon naiz han eta proposamen hau asko gustatu zitzaidan. Izan ere, oso lan librea da eta inork ez du inor edo ezer epaitzen. Marrazketa gustatzen zaionarentzat oso egitasmo polita da.

Zer egin behar da biharko saioan parte hartzeko? Aurretik izena eman behar da?

Bertan agertzearekin nahikoa izango da parte hartu ahal izateko. Hasieran izena-emateko epea jartzea pentsatu genuen, baina azkenean iruditzen zaigu bertan agertzearekin nahikoa izango dela. Ea betetzen den. Hori da gure esperantza.

Zerbait ordaindu beharko da?

Kartelean ipintzen duen bezala, parte-hartzaile bakoitzak nahi duena eman dezake, ez du prezio jakinik. Jendeak ekimena baloratzea eta diru pixka bat ipintzea espero dut, diruak balio bat emango diolako. Adibidez, erropa erosten dugunean, diru gehiago edo gutxiago gastatzen dugu. Ba hemen antzera. Diruaren bitartez eman ahal izango diogu balioa ekintzari.

Saioa bihar iluntzean izango da, baina zein ordutan?

19:30etik 21:30era. Bi orduko saioa izango da, eta tartean ordu laurdeneko atsedena egongo da.

Ez da zapatu iluntzerako plan txarra.

Ez, eta gainera zerbezatxo bat edan ahal izango duzu marrazten duzun bitartean, pintxo bat jan... Taberna batean egongo bazina bezala, baina modeloak marrazteko aukerarekin.

PRECIO: LA VOLUNTAD
PREZIOA: BORONDATEA

JAM SESSION
DIBUJO/MARRAZKETA

Modelos/ak: Zuriñe eta Nika
Musika: Maite Arroita Jauregi
(MURSEGO)

Azaraok 18 de Noviembre
19:30 - 21:30

Ipuruako Merkatu Plazan

“Modeloak marraztea ez da erraza, baina saio honetan ez ditugu besteen marrazkiak begiratzen eta epaitzen”

“Nire klaseetan beti jartzen dut musika. Egia da, oster, isilpean lan egitea ere oso interesgarria eta ona dela”

Behobia-Donostian 100 eibartar heldu ziren Bulebarrera

Aurreko domekan jokaturako Behobia-Donostia maratoi erdian ehun izan ziren proba amaitu zuten gure herriko atletak, aurreko urteetako markak hobetuz; ia, esaterako, kopuru hori 86an geratu zen. Euretako 20 emakumeak izan zirenez, portzentajea ere erraza da kalkulatzeko: %20ko hori parte hartu zuten korrikalari guztien arteko kopurutik behera geratzen da, hor emakumezkoen parte-hartzea guztien ia %30era iritsi baitzen. Bestalde, lasterketa hasi zuten 25.899 atletetik 25.636 heldu ziren Bulebarrera. Eta Chakib Lachgar irabazleak marka egin zuen, ordubetetik jaisten zen lehenengoa izateko: irundarrak 59 minutu eta 56 segundo behar izan zituen proba

Behobia-Donostia SAIKAPENA		
29	Pello Osoro	1h 05' 37"
345	Pablo Zabala	1h 14' 55"
430	Eneko Laskurain	1h 16' 02"
1080	Javier Murcia	1h 21' 08"
1099	Asier Cuevas	1h 21' 16"
1128	Eneko Azurmendi	1h 21' 23"
1380	Oihane Sarasketa	1h 23' 48"
2140	Unai Otazandiano	1h 26' 33"
2238	Aitor Bastida	1h 27' 26"
2432	Mikel Astigarraga	1h 27' 50"
2479	Igor Aiza	1h 27' 58"
2484	Igor Olafeta	1h 28' 00"
2485	Jorge Ibañez	1h 28' 06"
2533	Ibai Alonso	1h 28' 11"
2614	Miguel Angel Lopez	1h 28' 24"
2699	Alex Santiago	1h 28' 40"
2884	Aitor Diazabal	1h 29' 12"
2966	Ivan Makareno	1h 29' 26"
2983	Gorka Larrañaga	1h 29' 29"
2988	Felipe Sanchez	1h 29' 29"
3106	Eduardo Kapelastegi	1h 30' 00"
3731	Mikel Guinea	1h 31' 45"
3733	Jokin Garcia	1h 31' 46"
3767	Egoltz Plaza	1h 31' 51"
3685	Eduardo Carrera	1h 32' 14"
4108	Miren Gallastegi	1h 32' 53"
4321	Asier Paredes	1h 33' 30"
4351	Ion Zubiate	1h 33' 35"
4926	Mikel Gesalaga	1h 34' 53"
5099	Eduardo Alvarez	1h 35' 16"
5341	Nala Saiz	1h 35' 55"
5505	Ether Velasco	1h 36' 18"
5574	Ivan Arriola	1h 36' 30"
5619	Aneke Vega	1h 36' 35"
5620	Zigor Irtarte	1h 36' 35"
5631	Ibon Vega	1h 36' 36"
5673	Borja Sarasketa	1h 37' 06"
6400	Juan Solozabal	1h 38' 12"
6532	Gorka Gallastegi	1h 38' 28"
6539	Liber Prieto	1h 38' 27"
6565	Javier Perez	1h 38' 30"
6629	Enrique Agirrebeña	1h 39' 11"
7638	Jon Otxas	1h 40' 28"
7756	Raul Ramos	1h 40' 40"
7784	Iker Aranzibia	1h 40' 40"
8062	Enrique Salgado	1h 41' 14"
8231	David Rioho	1h 41' 34"
8395	Mikel Fernandez	1h 41' 53"
8672	Paul Agirre	1h 42' 25"
9086	Asier Arana	1h 43' 15"
9421	Maialen Martinez	1h 43' 53"
9426	Ainhoa Martinez	1h 43' 54"
10285	Andier Arizaga	1h 45' 25"
10294	Ibon Arizaga	1h 45' 26"
10368	Aitor Bolinaga	1h 45' 33"
10748	Saturrune Gimo	1h 46' 11"
10830	Jesus Angel Egido	1h 46' 18"
10836	Ibon Martin	1h 46' 25"
10944	Ane Ziaran	1h 46' 33"
11271	Tzomin Aizpurua	1h 47' 05"
11668	Marina Labaka	1h 47' 50"
11734	Eduardo Uribe	1h 47' 58"
11876	Erin Aitzibel	1h 48' 12"
11866	Sandra Gullin	1h 48' 21"
12197	Jon Mardaras	1h 48' 47"
12960	Andier Larrañaga	1h 50' 05"
12967	Migo Gurruteta	1h 50' 05"
13017	Oier Berrizbeteta	1h 50' 12"
13058	Aitor Eriz	1h 50' 16"
14082	Roberto Gallego	1h 52' 04"
14086	Nekane Allende	1h 52' 06"
14092	Gorka Agraña	1h 52' 06"
14851	Idoia Izagirre	1h 53' 28"
15389	Ivan Agüero	1h 54' 23"
15605	Alex de la Vega	1h 54' 55"
15627	Paula Alberti	1h 54' 57"
15842	Idoia Urriuela	1h 55' 25"
15835	Diego Rodriguez	1h 55' 36"
15940	Unax Rodriguez	1h 55' 36"
16135	Oscar Rodriguez	1h 55' 58"
16191	Inaitz Arriaga	1h 56' 06"
16242	Unai Mendiola	1h 56' 12"
16289	Jose Javier Eganola	1h 56' 16"
17835	Iñaki Erroati	1h 59' 14"
18265	Miren San Martin	2h 00' 23"
18269	Egoltz San Martin	2h 00' 24"
18761	Iker Lasuen	2h 01' 26"
18742	Kristina Lopez	2h 04' 13"
18763	Iakes Lopez	2h 04' 15"
18921	Ivan Conde	2h 04' 43"
20981	Aitor Betondo	2h 08' 07"
21065	Jose M Fernandez	2h 08' 27"
21248	Sergio Fernandez	2h 08' 58"
21404	Carlos Barreiro	2h 09' 31"
22144	Juan Manuel Lopez	2h 12' 37"
22146	M Dolores Vilanova	2h 12' 38"
22215	Nona Varela	2h 18' 36"
22217	Elene Varela	2h 19' 36"
23245	Naiara Untara	2h 20' 36"
23249	Eñxi Zubillaga	2h 20' 39"

osatzeko. Emakumezkoetan Laura Rodriguez kataluniarra izan zen lehenengoa, 1h 14' 22ko denborarekin. Eibartarrei dagokienez, Pello Osoro izan zen gure ordezkari-

rik onena, 20. postuan amaitzeko; Oihane Sarasketa izan zen, bestalde, lehenengo emakumea. Goian dituzue eibartarrek lortutako postuak eta egindako denborak.

Asier Cuevas herri-lasterketak 10 edizio beteko ditu biharkoan

Hamarkada bete du dagoeneko Asier Cuevas herri-lasterketak. Eta bihar, 17:00etatik 18:00ak arte, jokatu den probak aurreko edizioetako bidetik jarraituko du, inoiz baino herrikoiago. Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordekoek antolatutako ekitaldia goizetik abiatuko da, Unben egingo den Multikirola jardunaldiarekin. Behin arratsaldera iritsita, herri barruan prestatutako bi kilometro eta erdiko zirkuituaren hiru itzuli osatuko dituzte parte-hartzaileek, guztira zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea betetzeko. Antolatzailerik ehundik gora lagunek izena ematea espero dute: "Horretarako, bi aukera daude: sailkapenak.com helbidean edo, bestela, Deporreko



tabernan". 12 euro ordaindu behar da, gero kirol kutsuko giro berezian gozatzeko. Amaieran, gainera, sariak ere banatuko dira: "Pintxoak ere izango dira parte-hartzaile eta bolondresentzat eta bertoko produktuekin osatutako hiru otar zoz-

ketatuko ditugu". Zure Irrifarra, Nire Indarra elkartekoek ere hartuko dute parte herri-lasterketan, zazpi kiderekin, tartean Amets Vega eibartarra izango delarik; 2019an elkarteak sortu zenetik izan dira gure herriko proban.

Euskal Herriko 33. Hiru Txirlo Bola Txapelketa amaituko da bihar Lasturren

Euskal Herriko 33. Hiru Txirlo Bola Jaurtiketaren finala bihar jokatu-ko da, kasu horretan arratsaldean izan beharrean goizeko 12:00etan hasiko den tiraldiarekin. Itziarko Lasturko bolatokiak hartuko du jardunaldi hori eta bertan erabakiko dira aurtengo garaileak. Bola jaurtiketa-saioaren ondoren, erre-kortariak eta herri-bazkaria izango dira, bazkalostean txapelketako sari emate ekitaldiaren aurretik.

Sailkapen orokorrean Angel Ibarluzea elgoibartarrak jarraitzen du gorenean, 22 txirlorrek,

eta Asola Berriko Sergio Rodríguez bigarren da, bost txirlora. Emakumezkoetan oso lehia estua dago Aitziber Olaizola elgoibartarra eta Asola Berriko Olatz Rodriguezen artean, une honetan txirlo bateko aldeaz Elgoibarkoaren alde. Bikotekako sailkapenean, Asola-Berriko Bittor Ugarteburuk eta Bittor Astigarragak bigarren postuan jarraitzen dute, eta gauza bera gertatzen da taldekakoan, Elgoibarko San Miguel A-k tarte txikiarekin jarraitzen duelako Asola Berri A taldearen aurretik.

Ipar skate eskolakoak Elgoibarren gaur

Gaur arratsaldean Elgoibarren izango den Skate Jaiaren 5. edizioan izango dira Eibarko patinatzaileak erakustaldia eskaintzen. 16:30etik 17:30era izango den saioan Naia Laso, Veronica Steigner, Maria Elosegui, Alexis Navia eta Erika Caballerorekin batera hartuko dute parte Elgoibarko skate parkean. Jarraian, 17:30etik 18.30era, hastapen tailerra egongo da, eta hortik aurrera skate librea. Gainera, zozketak, DJak eta foodtruck-ak egongo dira arratsalde guztian zehar. Bertan patinatu nahi duenak kaskoa eraman beharko du nahitaez, eta bestelako babesak ere erabiltzea gomendatzen dute.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Sporting Huelva (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 2. Maila

Real Oviedo - EIBAR (etzi, 16:15)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Derio - VITORIA (bihar, 19:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

Peña Ath. Santurtzi - EIBAR C (bihar, 18:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Zumaia (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Anaitasuna (etzi, 17:00)

Erregionaleko 1. Maila

Mutriku - EIBARTARRAK (bihar, 18:30)

Jubeniletako Liga Nazionala

Zarautz - EIBAR B (bihar, 15:30)

Kadeteetako Euskal Liga

Danok Bat - EIBAR (bihar, 13:00)

FOBALL-ZALETUA

- Adahi Eraieder - Baserri (bihar, 09:00)
- Bar Marem - Xania Taberna (bihar, 10:30)
- Malape - Garajes Garcia (etzi, 09:00)
- Limpieza Rueda - GastroGilda (etzi, 10:30)

ESKUBALOA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Kukullaga - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Trapagaran (bihar, 18:45)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Salento Elgoib. (bihar, 16:30)

Jubeniletako Euskal Liga

Tolosa - MEK EIBAR

Kadeteetako Euskal Liga

Barakaldo - MECALBE

ERRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Aletico SS - EIBAR (etzi, 12:00)

SASKIBALOA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Zast Zarautz - EIBAR B (bihar, 19:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Elorri-Aldapa - EIBAR B (bihar, 16:15)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Chiclana (bihar, 20:15)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

Easwin - URBAT B

HIRU TXIRLO

Euskal Herriko Txapelketa / finala

Itziarko Lasturren (bihar, 12:00)

ATLETISMOA

X. Asier Cuevas herri-lasterketa

Deportiboaren aurretik (bihar, 17:00)

Partidu bizia eskaini zuten Sevillako eta Eibarko errugbilariek

Iberdrola Liga hasierako partidua izateko, ondo jokaturako eta borrokatutako partidua izan zen aurreko domekan Unben ikusi izan ahal genuena. Alde batetik, hainbat aldaketa izatetik aparte, asko gaztetu den etxeko taldea genuen; eta bestetik, Liga irabazteko favoritoetako den Sevillako Cocos Corteva. Hasiera ezinhoba izan zuten armaginek eta 13. minutuan Ohorezko Maila horretan debutatzen zuen Oihanek entsegu lortu zuen; baina, aipaturako gaztetasun horrek ekarri dezakeen kontzentrazio faltak eraginda, Sevillakoek hiru entsegu eskuratu eta lehen zatia 5-15ekoarekin amaitu zen.

Bigarren zatia are ikusgarriagoa izan zen, oinezko jokoaren protagonis-



Eibar Rugbyko emakumezko eta gizonezkoen taldeek Urtzi Abantzabalegi gogoratu zuten.

ta nagusi bihurtuta. Sevillako Unibertsitatekoek hobeto kudeatu zuten abantaila, beste bi entsegurekin, eta Eibar Rugbykoek zati horretan hiru entsegu lortu bazituzten ere

(euretako bat meletik, zigor-entsegu), markagailua makilatzearekin konformatu behar izan zuten. Azkeneko 22-37ak kanpotarren nagusitasuna erakutsi zuten.

Eibar Igerixaneko 28 igerilarik 26 domina lortu zituzten Ipuruan

28 laguneko taldea aurkeztu zuen Eibarko igeriketa klubak Ipurua kiroldegian jokaturako Neguko Pro-bintziako Ligaren bigarren jardunaldian, eta ia kopuru horretara iritsi zen Eibar Igerixanekoek gutzira eskuratutako domina kopurua. 26 domina horietatik, gainera, gehienak -15- urrezkoak izan ziren, hau da, hamabost proba horietan

gure herriko igerilari bat izan zen garaile. Federatuen mailakoak zortzi izan ziren parte hartzen (launa gizonezko zein emakumezko), eta beste hogeik eskola mailako probetan hartu zuten parte (11 neska eta bederatzi mutil).

Irabazleei dagokienez, federatuetan Paula Calvok hiru proba bereganatu zituen (400 estilo, 100 bizkar

eta 50 tximeleta), Asier Gomezek bi (400 estilo eta 200 braza) eta Igor Ruiz 50 tximeletan nagusitu zen. Eskola mailako probetan, bestalde, hauek izan ziren irabazleak: Itsaso Castrillo bitan heldu zen lehen postuan (100 bizkar eta 50 tximeleta), Jokin Oneka garaile izan zen beste bitan (200 libre eta 50 tximeleta), Jon Guineak eskuak jaso zituen 50 libretan, Itziar Eirizek 50 bizkarrekoa irabazi zuen eta Julen Prietok 100 brazakoa. Erreleboetako probatan eskainitako maila ere ez zen nolana hikoia izan: federatuen mailan, 4x100 libreko proban, gizonezkoen laukotea nagusi izan zen eta emakumezkoenak bigarren amaitu zuen; eta eskola mailako 4x100 librekoan ere nesken bi laukoteek lehen eta bigarren postuetan amaitu zuten. Igerilari asko bildu zituen ekimean "etxekoak" ondo erakutsi zuten etxe hori gordetzen.





Bertso-paper lehiaketak baditu irabazleak

Aste honetan aukeratu ditu epai-mahaiak San Andres bertso-paper lehiaketako irabazleak. Helduen mailan Oñati aldera joan da aurtengo lehenengo saria. Urko Egaña izan da irabazlea "Belar moztu berrria" bertso-sortarekin. 300€ eta txapela irabazi ditu. Eta bigarren saria, berriz, Arrate Gisasola eibartarrak bereganatu du, "Amama ekingo al diogu" izeneko bertsoekin. 250€ eta plaka eramango ditu. Eta 16 urtetik beherakoen mailan, berriz, lehenengo bi sariak Juan Antonio Mogel ikastetxera joan dira. Julen Blasco Azpeitiak jantziko du irabazlearen txapela eta

Peru Sasieta Chimenok jasoko du bigarren sailkatuaren plaka.

Saritutiek gaur zortzi, azaroak 24, ...eta kitto! Euskara Elkarateak Coliseon antolatuko duen bertso-jaialdian jasoko dituzte sariak. Ekitaldia 20:00etan hasiko da eta behin sariak banatuta ekingo zaio bertso-saioari. Primerako seikoteak jardungo du nor baino nor Jon Mikel Mujikaren esanetara: Unai Iturriaga, Maddalen Arzallus, Oihana Bartra, Beñat Gaztelumendi, Jon Maia eta Unai Agirre. Sarrerak ordubete lehenago (19:00) jarriko dira salgai Coliseoko leihatilan (8€).



Larruzko zorroak egin dituzte ...eta kitto!-n

Joan den martitzenean larruzko zorroak egiteko tailerra antolatu zuen ...eta kitto!-k Illunabarrian programaren barruan. Teknika erraza erabiliz zorro politak egin zituzten parte-hartzaileek Urko irakaslearen laguntzarekin. Hurrengo asteko martitzenean, berriz, Oteiza maisuaren artelanak, kutxa hutsak izenekoak, erreproduzituko dituzte.

Eriz magoa Coliseon izango da

Abenduaren 2an, zapatua, Eriz magoak ikuskizuna eskainiko du Coliseon eguerdiko 12:00etatik aurrera. Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familientzat antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarateak ikuskizuna eta euren artean banatu ditu lehenengo gonbidapenak, baina astelehenetik aurrera (azaroak 20) edonork izango du sarrerak jasotzeko aukera. Horretarako ...eta kitto!-ren bulegotik pasa behar da (Urkizu, 11 solairuartea) goizeko 08:30etik 13:00era eta 17:30etik 19:00etara. Sarrera doan da, eta heldu bakoitzeko, asko jota, hiru ume sartuko dira. Antolatzaileek nabarmendu dute ikuskizuna familientzat dela eta ezingo dela heldurik gabe umerik sartu.





Jon Maiak Eibarrera ekarriko du bere ikuskizun berria

Urtarrilaren 12an Coliseo antzokiak hartuko du arratsaldeko 19:00etatik aurrera Jon Maiaren “Kantu berri bat gara” ikuskizuna. Eibarko Udaleko Kultura sailak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatuta etorriko da

Maiaren lan berria Eibarrera eta estreinaldia egingo den lehen herrietakoa izango da gurea. 2021ean argitaratu zuen Maiak “Kantu bat gara” arrakastatsuari jarraipena eman dio aurkeztu berri duen liburu-disko berriak. Lehenengo har-

tan beste talde edo abeslariarentzat egindako letra propioen moldaketak eskaintzen zituen; lan berri honetan, berriz, hamar abesti berri eta lau bertsio jaso ditu zumaia-arrak, Negu Gorriak, Gozategi, Gari eta Pello Reparazen kantuen. Honakoan ere, aurrekoan bezala, goi mailako kolaboratzaileak izan ditu lagun, Itziar Ituño, Olaia Intziarte, Maddalen Arzallus eta Luis Pastor esaterako, eta nabarmentzekoa da Silvio Rodriguezen parte hartzea, *Nostalgia* izeneko kantua abesten baitu euskaraz kantautore kubatarrek.

Jon Maiak azken urteotan jopuntu izan dituen identitatea eta transmisioa ditu ardatz lan berri honek eta edertasunaren eta emozioen bidez heltzen die gai horiei. Kontzertu baten ohiko egituratik harago doaz bertsolari zumaia-rraren emanaldia, proiektzio, kolaborazio berezi, inprobisazio eta ezusteko ugarirekin. Bere ohiko musikariek in etorriko da Eibarrera Maia, denak ere aski ezagunak: Gorka Hermosa (akordeoia), Pello Ramirez (txeloa), Nacho Soto (pianoa eta sintetizadorea) eta Nerea Quincoces (perkusioak eta ahotsa).

19 taberna gilda-lehiaketan


Abenduaren 12, 13 eta 14an egingo den Gilda Lehiaketara 19 taberna aurkeztu dira. Iaz egin zen bezala, aurten ere hiru sari egongo dira jokoan: epaimahaiak bi emango ditu, gilda tradizionalari eta berri-



tzaileenari, sari bakoitza 150€-koa; eta herritarrek ere gehien gustatu zaien gilda sarituko dute, hori ere 150€-rekin. Botoa ematen duten herritarren artean bi lagunentzat asteburuko egonaldia zozketatu-

Barixakuak Jolasian Torrekuan izango da gaur arratsaldean

Torrekuko parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimene-ko jolasak. 17:00etatik 18:00etara egingo dira, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat. Euria egingo balu, anbulatorio zaharreko arkupeetan egingo lirerateke. Gaurzortzi, azaroak 24, Urkizuko parkeak hartuko ditu aurtengo azkeneko jolasak.



Jokin Bergarak bere liburua aurkeztuko du Kultur

Jokin Bergarak 'Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak' liburua argitaratu berri du, eta horren aurkezpena egingo du eguaztenean, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartearen, Iker Eizagirre-rekin batera. Iratzar Fundazioak eta Txalapartak argitaratutako Iparrorratza bildumaren barruan kokatzen da. Eibartarraren liburuxkak, krisi ekologikoaren gaineko analisi politiko eta sozialetik harago, atek zabaldu nahi dizkio soilik lur kolektiboetan loratzen den itxaropenari.



Santa Zezilia serenatarako kantu-paperak banatu dituzte

Eibarko Musika Bandak Santa Zezilia Serenata egingo du hilaren 25etik 26rako gauean. Betiko moduan, kalejira 00:00etan abiatuko da, Untzagatik, eta musikoak herrian zehar ibiliko dira gaua girotzen. Eki-menari bultzada eman eta jende gehiago erakartzeko asmoz, serenatan abestuko diren lanak jasotzen dituzten kantu paperak atera ditu Bandak, debalde banatu eta "herri guztiak parte hartzera" animatzeko. Portalean, Coliseo antzokian, eta Ongi Etorri, Trinkete eta Etxegiña tabernetan eskuratu daitezke.



"Kortxoaren dilema" euskarazko antzezlan

Bihar 19:00etan taularatuko du "Kortxoaren dilema" Tartean Teatroa taldeak, Coliseon. Mireia Gabilondok zuzenduta, lana "endreduzko thriller politiko" da bi aktorentzat, antzezlaren egilea ere baden Patxo Telleria eta Mikel Martinezentzat. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



'Solo un ensayo' lanak irabazi du Javier Agirresarobe saria

Aurreko zapatuan Asier Errasti Film Laburren Lehia-ketaren amaierako ekitaldian banatu zituzten edizio honetako sariak. Javier Agirresarobe sari nagusia Hugo Sanz zuzendariaren 'Solo un ensayo' lanak eskuratu zuen; eta fikziozko bigarren saria, 'Paris 70' (Dani Freixas Roca) laburmetraiak. Euskarazko lanik onena Sonia Estevez Fernandezek 'Malkoak' izan zen. Animaziozko onena, berriz, Carmen Cordobaren 'Amarradas'. Eta Eibarko onenaren saria Marina Perosanz Moralek jaso zuen, 'Muskil' lanari esker.



Literaturako nobedadeak %10eko deskontuarekin

Aurreko barixakuan zabaldu zuten Eibarko Disko eta Liburu Azoka, Untzagan. Bederatzi parte-hartzaile daude oraingoan, tartean Eibarko Udala. Urteroko martxan, Euskadiko Liburu Ganbarak Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako azokan %10eko deskontuarekin eros daitezke literaturako azken nobedadeak eta, horrekin batera, aukerako liburuak eta deskatalogatutakoak erosteko aukera ere bada-go. Domekan itxiko ditu ateak azokak, baina ordura arte goiz eta arratsalde egongo da zerbait erosteko aukera, gaur 11:00etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era. Eta bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.



M^a Carmen Pirizek idatzi eta ilustratu duen ipuina salgai

M^a Carmen Piriz Garcia eibartarrak “Al cobijo de la encina” berak idatzi eta ilustratu duen haurrendako ipuina ezagutzera emateko aprobetxatu du egunotan Untzagan dagoen Liburu Azoka. Bertako saltzaile batek tokia egin dio, eta aurreko asteburuan bertan egon zen Apuleyo Ediciones-en eskutik kaleratu duen autoedizio-lana sinatzen eta saltzen.



Debarrena Orfeoia Karmelitetan abestuko du

Debarrena Orfeoia bihar emanaldia eskainiko du Eibarren, Karmengo Amaren elizan, meza amaitu ostean, 20:15ean. Jose Miguel Laskurainek zuzendutako saioan, XXI. mendeko musika sakratua eta Hertzainak edo Ken Zazpi taldeen euskarazko partiturak nahastuko dituzte, baita telebistako musika ere. Zuzendariaren berbetan, “ziur gaude egitaraua bertaratzen diren guztien gustokoa izango dela”. Une honetan, Debarrena Orfoia 20 kidek osatzen dute, eta kide berriei zabalik jarraitzen du.

La Novenaren antzezlan berria

Ikasten elkartearen La Novena antzerki taldeak ikus-kizun berria aurkeztuko du egunean: Dario Foren “La violación” antzezlan ardatz nagusitzat hartuta, taldeak sortutako beste eszena batzuekin osatu duten “Ni un paso atrás”. Diotenez, “antzerkiaren bidez, emakume askok eta askok bizi dituzten egoera gordinak, umiliagarriak eta lazgarriak” erakutsi nahi dituzte. Coliseon izango da saioa, 19:00etan, eta sarrerak 5 euro balio du.



Van Gogh-i buruzko hitzaldia



Eibarko Artisten Elkarteak hitzaldia antolatu du martitzenerako: “Van Gogh. La obra completa”, izenburuari jarraituko dio Ricardo Aldamak, 18:00etan Portalean.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5	7		8					
		4						6
			6	1	4		5	
	6					9		
8	3	9				5	7	4
		7					8	
	2		1	4	9			
7						2		
				5		6	1	

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			1	6	7			
		7			6	2		
		3			5			
7		5	4	9			6	
6	3				2	5		
1		6	3	2		8		
	7			3				
3	4			7				
	5	1	8					

Azaroak 16 - 22

BARIXAKUA 17

LIBURU AZOKA

11:30-13:30/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien salmenta. Untzaga.

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00 Barixakuak Jolasian. Torrekua.

MODA DESFILEA

18:30 Belaunaldien arteko desfilea. Atsedendian musika: Imanol Salado. Untzaga gizarte etxea.

ASANBLADA

18:30 Azaroaren 30eko Greba Feministari buruzko informazioa emateko. Andretxea.

ZAPATUA 18

BAKAILAO TXAPELKETA

10:30/12:00 San Andres XIX. eskolarteko bakailao lehiaketa. Errebal Plazia.

OMENALDIA

12:00 Jon Etxaberi azken agurra. Armeria Eskola.

SHOWCOOKING

12:00/14:00 Bacalaos Alkorta V. pintxo lehiaketaren finala. Errebal Plazia.

LIBURU AZOKA

12:00-14:00/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien salmenta. Untzaga.

HERRI-LASTERKETA

17:00 X. Asier Cuevas herri-lasterketa. Toribio Etxebarria.

ANTZERKIA

19:00 "Kortxoaren dilemma" (Tartean Teatroa). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

TAILERRA

19:30/21:30 Marrazketa Jam Session. Ipurua Merkatu Plaza.

KONTZERTUA

20:15 Debabarreneko Orfeoia kontzertua. Karmengo Amaren eliza.

DOMEKA 19

LIBURU AZOKA

12:00-14:00/17:30-20:30

Disko eta liburu berrien salmenta. Untzaga.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Haurrekin patinatzerako joateko aukera. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 20

BIDEO-FORUMA

18:30/20:00 Emakumeak historia egiten: "Las Sinsombrero". Dinamizatzailea: Patricia Perex. Andretxea.

MARTITZENA 21

JARDUNALDIA

09:30/13:30 "Eibar, euskaraz heziko duen hiria". Markeskua.

TAILERRA

18:00 Otezia tailerra. ...eta kitto!.

HITZALDIA

18:00 "Van Gogh. La obra completa", Ricardo Aldamarekin. Eibarko Artisten Elkartearen eskutik. Portalea.

AUZO-BILERA

19:00 Erdialdeko bizilagunekin. Untzaga gizarte etxea.

EGUAZTENA 22

LIBURU AURKEZPENA

18:30 "La feliz y violenta vida de Maribel Ziga". Hizlaria: Itziar Ziga. Andretxea.

LIBURU AURKEZPENA

19:00 "Adaxka lehorrak", Jokin Bergararen liburu aurkezpena. Arrate Kultur Elkartea.

AUZO-BILERA

19:00 Ipuruako bizilagunekin. Ipuruako jubilatuetxea.

SANTA ZEZILIA

19:30 Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

HITZALDIA

19:30 "Gestión de equipos", Joseba Etxeberria SD Eibarko entrenatzailearen eskutik. Felix Elkororibek moderatuta. Untzaga gizarte etxea.

EGUENA 23

HITZALDIA

10:00/12:00 "Etiopian lankidetzan aritzea: Tigrayaren gerra zibila eta ekintza humanitarioa". Hizlaria: Lierni Fernandez (Egoaizia GKE). Sarrera libre. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:50-20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuetxea.

HITZALDIA

18:00 Argi eta gas-horniduraren inguruko hitzaldia, KIUB-ren eskutik. Portalea.

BILERA IREKIA

18:30 Azaroaren 30ean egingo den Greba Feminista prestatzeko. Andretxea.

ANTZERKIA

19:00 "Ni un paso atrás" (La Novena). 5 euro. Coliseo.

AUZO-BILERA

19:00 Urkiko bizilagunekin. Urkiko eliza.

ERAKUSKETAK

Azaroan (hilabete osoa):

- **Amia Tellaetxeren pintura-erakusketa** (Portalea tabernan)

Azaroaren 19ra arte:

- **"EYBAR", Javier Rodríguez Perez-Curielen instalazioa.** (Portalea).
- **INDALECIO OJANGUREN XXXVI. argazki-lehiaketa.** (Portalea).

Azaroaren 26ra arte:

- **JESUS BELAUSTEGIren zeramika-lanak.** (Topaleku).

Azaroaren 28ra arte:

- **Modest Mussorgsky-ren "Cuadros de una exposición", ESTEBAN OROZen koadroak.** (Untzaga gizarte etxea).

Otsailaren 18ra arte:

- **"TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena.** (Armagintzaren Museoa).

Otsailaren 29ra arte:

- **"EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria inbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKIA eibartarraren erakusketa.** (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **19an:** 20:00
- **20an:** 19:30

“El maestro que prometió”
DRAMA



2023/Espainia/110'
Zuzendaria: Patricia Font
Aktoreak: Enric Auquer,
Laia Costa, Luisa Gavasa
Hezkuntza/Gertatutakoa

2 ARETOA

- **19an:** 17:00, 20:00
- **20an:** 19:30

“Vidas pasadas”
DRAMA



2023/AEB/105'
Zuzendaria: Celine Song
Aktoreak: Greta Lee, Yoo Teo,
John Magaro
Erromantzea/Bertopatzea

1 ARETOA

- **18an:** 16:00, 19:15, 22:30
- **19an:** 16:30, 20:00 (Antzokia)
- **20an:** 19:30 (Antzokia)

“Los juegos del hambre”
AKZIOA



2023/AEB/157'
Zuzendaria: Francis Lawrence
Aktoreak: Rachel Zegler, Tom
Blyth, Hunter Schafer
Zientzia-fikzioa/Abenturak

ANTZOKIA

- **18an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **19an:** 17:00

“Trolls 3. Todos juntos”
ANIMAZIOA



2023/AEB/91'
Zuzendaria: Tim Heitz
Komedia/Familian ikustekoa



Gaizka Vitoria Arano

7. URTEURRENA
2016/11/13

“Urak dakarrena urak daroa.
Zuk emandakoa gurekin geratzen da”



- ETXEKOAK -



Jose Antonio Narbaiza Mandiola

1. URTEURRENA
2022/11/15

Nahiz eta gure ondoan ez egon,
ez zaitugu ahaztuko.
Beti jarraituko duzu gure bihotzetan.



- ETXEKOAK -

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **PAULE**, martitzenian 2 urte bete zenduazena eta. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, **IRATI!!** Astelehenian 12 urte egin zenduazena eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak, **JULEN!!** Atzo 2 urtetxo bete zenduazena eta. Musu potolo bat etxeko guztion partez. Askok maite zaittugu, bihurri!



Zorionak, **SARA**, martitzenian 5 urte haundi beteko dozuzena eta. Musu haundi bat famelixaren partez. Askok maite zaittugu!



Alaittasuna barreiatzen dozulako, ikaragarri maite zaittugu. Zorionak, **MARTIN**.



Javier Usobiaga Barrenechea

1. URTEURRENA
2022/11/19

"GURE BIHOTZETAN
BETIRAKO
IZANGO ZAITUGU"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -





Andres Garcia Acosta

2023/11/15

"Betira arte.
Ez adiorik,
aitatxo"

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Eibarko Untzaga Plazan etxebizitza salgai. 79 m², guztiz berriztua, argitsua, balkoia, 3 logela eta igogailuarekin (ez da 0 kota). 634430647.

1.2. Errentan

- Andrazko bakarrak pisua hartuko luke Eibarren alokairuan hilabete batzuetarako. 635734646. Josune.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Orduka. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 631229408.
- Neska eskaintzen da pegorak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da dantzara eta garraio lanerako, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612223075.

- Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, zain-tzaile bezala, etab. 602381455.
- Erizain teknikari laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu edo paseatzera atera eta garbiketarako egiteko (etxeak, pegorak, bulegoak...). Orduka. 612460920.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. 631159373.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 646821678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. 632980833. Ana Mirena.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko etab. 631307303. Angie Paola.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Ingelesa ikasten diharduena behar dugu 12 urteko ume bati klase partikularrak emateko etxean. 607926886.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ohe artikulatua salgai. Egocera onean. Eskaren kontrako koltxoia, barroteak eta mahai tolesgarriarekin. 650989660. Arrate.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entrepanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**

838200124
kolegiatu zentzua



T. Etxebarria, 5 - I. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOMEZ ETA ARRASALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023

Okulistak

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klínika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 1, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (122 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagola Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com




PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.




943-206776

EIBARREN

Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika



**Ginekologia
eta Obstetrizia**



**Jaio aurreko
diagnostikoa**



**Laguntza
Bidezko Ugalketa**



**Bularreko
patologia**

3 Mediku
profesional zuri
arreta emateko

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Eibar
Urkizu Pas., 11 (1. solairua)
943 121 021